

Pasioa

Itzea Urkizu
Arsuaga

Ez dakit betebeharrak sozial bilakatu den, edo sozial izateko betebeharra hori ote den, baina, antza, bai ala bai erabili behar da Twitter, iritzi propioa zabaltzeko; nik nire itzala ikusteko, *like* eta RTen argitan.

Gogoan dut behin nola idatzi nuen, pasioek mugitzen dutela mundua; bai, behintzat, nirea. 2017ko apirilaren 4a zen, eta Korrikako lekukoa hartu eta pasatu berri nuen. Euskaraz eta haren unitertsoarekiko maiteminaz ari nintzen, eta baita gure dantza taldeaz ere; bizitza osoan bidaide izan dudana eskolaz. Gaur ere berdina idatziko nuke esalditxoak, nahiz eta neure buruari onartu, ameslarietia ere banaizela askotan.

Pasioek ez dituztelako beti bide berak urratzen. Sakatu, bestela, txori urdinaren irudia, eta irakurri. Has gintezke fut-

bol partiduen inguruan sortzen den irain entziklopedia aipatzen: futbol aditu orojakileak vs futbola zelai politikoizat –edo– besterik ez dutenak. Txiolari monografikoak ere badira, gai baten bueltan eta bakarrik idazten dutenak. Edo, idazten dutena idatzita ere, beti koska bat gorago daudenak, esnobismo ezin-erakargarriago eta eskuraezin bat dariela.

Txakurrek beren espazioa markatzeko pixa nola, beren genero-rolak eta pribilegioak ez galtzeko mezuak hala idazten dituztenak ere izango dira tartean; bai, une batez adierazpen askatasunaren kontra jartzen nauten horiek guztiak. Kazetariak ere zientoka: batzuk, lan propioak zabaltzen eta gainerakoenak irakurtzen; beste batzuk, aurrez aipatutako multzo horietakoren batean.

Bai, badakit: Twitterren ibiltzen zaren horietakoa zara, baina ez duzu zure txiolari gustukoena sasi-sailkapen horretan aurkitu. Lasai, pasioa beste norabaitera bideratuko zuen, seguru. Nik jarraitzen ez ditudan gai eta harietara akaso edo, bestela, egurra ematera, ia mende laurdenez, euskara hutsean, rock izar izan daitekeela erakutsi digun taldeari; “koherente naiz nire kontraesane-kin” aspaldi abestu zuenari. Halakoak gara: gaur, azkura ematen digute musika kate handikien jaialdiek, hala tokatu delako. Azal diezadatela, bestela, non dagoen koherentzia absolutuaren iraultza hori, agertoki erraldoiek banketxe handikien izena hartzen dutenean.

Bakoitza bere pasioek mugitzen dute, bai, eta nik behar baino ordu gehiago pasatzen ditut Twitterren. •

Osasun sistemaren ajeak

Koldo Sagasti

Pasa den astelehenean Eibarko ospitale berria inauguratu zuteneko esperpentoa osasun sistema publikoaren egoeraren ale-
gia esanguratsua izan da. Ekitaldian lehendakariak akatsez beteriko eraiki-
naren irekiera ofiziala burutu zuen eta, bide batez, bere presentziaz, babesa eman nahi izan zion polemikaren jomuga dagoen Osasun sailburuari.

Zer funtzionalitate-irizpideren arabera diseinatu dezake erietxe bat ambulanzientzako sarbide egokia eraikitzea ahazten duenak? Edo logeletan gorpil aulkiak sartzeko moduko ateak jartzen

ez dituenak? Bada, irizpide bertsuek gihatzen dute zerbitzu publikoa negozio pribatu bat bezala kudeatzen dutenen jarduna. Halaxe salatzen zuen inaugurazio-
tik ordu batzuetara Roberto Sanchezek, mediku espezialisten oposizioetako iruzurra azalarazi duen profesionaletako batek.

Debagoieneko Ospitaleko anestesistak azaltzen zuen osasun sare publikoa kudeatzen dutenek ez dutela zerbitzu publikorako inongo bokaziorik, aitzitik, baliabide komunak euren botere egarria asetzeko baliatzen dituztela, jasotako mesedeak kitatzeko, eta lausengari leia-

lez inguratzeko. Eta mesede-sare hori sustengatzeko ezinbestekoa da nor bere tokian jarriko duen hautaketa sistema ustel bat. Osagilearen esanetan, oposizioen inguruko irregulartasunak aspal-
ditik ezagunak eta aho batez onartutakoak dira, eta gardentasun falta horrek eragin zuzena du osasun sistemaren eraginkortasunean. Ondorioak denok pairatu ditugu, noiz edo noiz, osasun zerbitzu publikoak erabili behar izan di-
tugunean.

Izango dugu zer pentsatu hurrengo batean medikuaren itxaron-gelan hitzordua ordubetez atzeratzen denean. •